

HEZKIDETZA
PROIEKTU OSOKOA

GABRIEL ARESTI BHI

*MARKO
TEORIKOA*



GABRIEL ARESTI INSTITUTUKO HEZKIDETZA ETA GENERO INDARKERIA SAHIESTEKO PROIEKTUA MARKO TEORIKOA

Hau dugu abiapuntua: gizartean hor dagoela sexismoa erakusten digu errealitateak. Sexuaren arabera gizakia diskriminatzean datza sexismoa. Gizakien lan eta betebeharretan sexuaren arabera eginiko zatiketan edo desberdintzean oinarritzen da sexismoa. Bizitzan, gizartean, familian eta eskolan, rol desberdinak ditugu pertsonak emakume ala gizon izatearen arabera.

Gure nortasunaren eta gaitasunen arabera baino sexuaren arabera desberdintutako egiteko horiek ikasi egiten ditugu eskolan. Tradizioz “maskulinoak” diren balioak -hala nola lehiakortasuna, arrakasta...- dira garaile gizartean, beste batzuk, batik bat “femeninotzat” hartuak, mesprezatuak izanik.

Horregatik, behar-beharrezkotzat jotzen dugu hezkidetzan oinarritutako irakaskuntza, hau da, irakaskuntza ez-sexista. Irakaskuntza mota horrek pertsona bakoitzari libreki, bere sexuak baldintzatu gabe bere burua garatzeko posibilitatea eman behar lioke, gure sentimenduak ezarritako rolik eta klitxerik gabe aintzat hartzeko eta besteen aurrean aditzera ematea ahalbidetuz. Hezkuntza eredugarri baten bidean gizonezkoek eta emakumezkoek duten alderik ederrena jasoko lukeen irakaskuntza.

Bide horretan, ondoko osagaiak bilduko lituzkeen irakaskuntzari beharrezko deritzogu:

- Diskriminazio sexista badagoela konturatzea estamentu guztietako pertsonak.
- Generoaren indarkeria badagoela konturatzea estamentu guztietako pertsonak.
- Heziketa ez-sexista indartzeko ekintza eta egitasmoen lan programatua.
- Emakumeen aldeko jardunbideari ekin.



- Bide horretan, parte hartze eta kudeaketarako konpromisoa ikastetxearen aldetik.
- Sexu-aniztasunaren trataera egokia eta askea

Azken urteotan helburu horiekin hainbat lan puntual burutu da (urriaren 25, martxoaren 8a, sentsibilizazio kanpainak, hitzaldiak, tailerrak...), eta horri guztiari erabateko forma eman beharko litzaioke proiektu honen barruan, ondoko esparruak bilduz. Hauexek dira gure erronkak:

1. Ikastetxearen kudeaketa eta antolaketa
2. Esparruaren antolaketa eta banaketa, eta paisaiaren kudeaketa
3. Eduki kontzeptual eta metodologikoak
4. Orientazio akademikoa eta profesionala
5. Jarrerak eta balioak
6. Eskola-orduz kanpoko jarduerak
7. Familiak, gurasoak

1. Ikastetxearen kudeaketa eta antolaketa

A) Helburuak

- Azaleratu, argitan jarri eta azaldu emakumeen presentzia hezkuntza eremuan.
- Emakumeen parte hartzea bultzatu bai kudeaketa- eta erabaki-organoetan, bai ikasgelako zein gelaz kanpoko jardueran.

B) Bitartekoak

- Ikastetxeko estamentu guztietan (ikasleak, irakasleak, gurasoak ..), ordezkarien hautaketa egitean, emakumeen parte hartzea bultzatu.
- Ikastetxeko dokumentu guztietan nabariarazi emakumeen presentzia, Ikastetxearen dokumentazioa, barne-araudia, ebaluazio dokumentuak, deialdiak ikastetxeak kanporantz eginiko azalpenak
- “Sexu” aldagaiaren agerpena ikastetxeko datu-mota guztietan.



- Familia mota desberdinen agerpena ikastetxeko datu-mota guztietan.
- Hezkidetza- edo berdintasun batzordea sortu, beraren animatzaile irakastorduen murrizketa izango duen irakasle bat jarriz. Partaideak estamentu guztietakoak izan beharko lirateke.
- Urriaren 25a, martxoaren 8a, maiatzak 17 eta ekainaren 28a ospatzea, zuzendaritzak, ikasleek eta irakasleek bertan parte hartuz.
- Hezkidetzaren inguruko liburu-ondarea eta baliabide digitalak handitu eta kudeatu.
- Urtero institutura datozen irakasle berri guztiei institutuko Hezkidetza Proiektua helaraztea, gure proiektuan parte hartu dezatela.
- Familia guztiei institutuko Hezkidetza Proiektua helaraztea, guztiok bide beretik abiatzeko.

2. Esparruaren antolaketa eta paisaiaren kudeaketa:

A) Helburuak

- Azaleratu, argitan jarri eta azaldu emakumeen presentzia hezkuntza eremuan.
- Espazioren banaketa zaindu; betiko erabileratik aldendu eta denon artean erabaki zelan erabili gure espazioa guztion onurako.

B) Bitartekoak

- Hizkuntzak, kartelak, errotulazioak... argitan jarri eta azaldu behar dute emakumeen presentzia hezkuntza eremuan.
- Tailerra edota ekintza desberdinen bidez erabaki zelan erabili gure esparrua: patioaren erabilera, baloiaren erabilera...

3. Eduki kontzeptual eta metodologikoak

A) Helburuak

- Curriculumaren osagai bihurtu heziketa afektibo-sexuala.



- Liburuen behaketa eta miaketa: eduki kontzeptual sexistak eta homofobikoak dituzten liburuak baztertzeko.
- Programazioak: zientziaren esparru desberdinetan emakumeek eginiko ekarpenak argitan jarri eta hainbat esparrutatik landa geratu izanaren azalpena eman.

B) Bitartekoak

- Heziketa afektibo-sexualean mintegiek parte har dezaten egin: Etika, Heziketa Fisikoa, Giza eta Gizarte Zientziak, Natur Zientziak.
- Etika: sexu-aniztasunari eta familia eredu berriei buruzko hausnarketa egin.
- Historia: sexualitatearen eta sexu-aniztasunaren interes sozial, politiko eta erlijiosoen arteko harremanak aztertu.
- Filosofia: sexualitate eta sexu-aniztasunaren interpretazio filosofikoak.
- Natur Zientziak: gorputzaren ezagutza zientifikoa.
- Heziketa Fisikoa: sormena eta adierazpena ahalbidetzen dituen gorputz heziketa.
- “Sexu” aldagaiaren agerpena ikastetxeko datu-mota guztietan, baina ikasleei askatasuna emanez haiei dagokien aldagaia aukeratzeko.
- Ondokoa begiesten duten testu-liburuen hautaketa:
 - ❖ Emakumeen ekarpenak agertzen dituzten edukiak
 - ❖ Sexu bakoitzari tradizioan eman zaizkion rola bizi-erantziko ez dituzten
 - ❖ Irudiak, irudien presentzia orekatuz.
 - ❖ Emakumea diskriminatzen ez duen lengoia
 - ❖ Aipatutako helburu orokorrak nola garatu analizatuko du mintegi bakoitzak bere ikasturteko programazioan:

- Zientzien arloa: ezkutuan gordetako emakume zientzialariak. Zientziaren erabilera, emakumearen zapalkuntza justifikatzeko.



- Gizarte arloa: filosofiak eta historiak errealitateaz egiten duten interpretazio sexista sakon adierazi.
- Hizkuntz arloa: lengoia baloreak eta ideologia matxista igortzeko tresna dela jabetzea.
- Heziketa fisikoa: lehiaketa-kirolaren monopoliopetik askatu heziketa fisikoa, sormena, jokia eta erritmoa landuz.

4. Jarrerak eta baloreak

A) Helburuak

- Hezkidetzarako ondo prestatuak izan behar dute irakasleak, erreferentzia eredu ez-sexista eskaintzeko, beraien aurreiritzi sexistei aurre eginez, kontzientzia eta jarrera aldaketa ahalbidetzeko.
- Azaleratu, argitan jarri eta azaldu LGTB ikasleen (gay, lesbiana, transexual, bisexual) presentzia hezkuntza eremuan.
- Azaleratu, argitan jarri eta azaldu familia mota desberdinak daudela.
- Azaleratu, argitan jarri eta azaldu institutuak ez duela onartzen ezta babesten ere: genero indarkeria eta eraso eta irain sexistak, homofobikoak eta transfobikoak.

B) Bitartekoak

- Gure jarrera eta balioei buruzko hausnarketa egin.
- Irakasleen formazioa eta birziklatzea.
- Femeninotzat hartu izan diren kalitateen berbalioestea (sentsibilitatea, gustu estetikoa, etab.)
- Orientabidea eta laguntza ematea ikasleen artean atipikotzat jotzen diren erabaki eta jarreraren aurrean; generoaren jolasak... (mutil sentibera, ikasle neska protagonista,...)
- Lengoaia ez-sexistaren inguruko gogoeta eta beraren erabilera gelan.



- Ikasgelan zein beste tokietan ikasleen eta irakasleen parte hartze kopuruari eta erari buruzko gogoeta, era orekatuan parte hartzera animatuz emakumezkoak eta gizonezkoak.
- Neska ala mutila izatearen arabera egiten diren espektatiba estuago edo zabalagoei buruz eta horrek dakarren mutilekiko exigentzia handiagoez eta neskekiko gainbabesaz gogoeta egitea eta jabetzea.
- Taldeak egiterakoan zein ikastetxeko edozein jardueretarako kontuan hartu neska eta mutilen proportzioa.
- Neskak isiltzera eta mutilak protagonismora bultzatzen dituen “mutil bihurri ” eta “ neska isil eta saiatu ” ereduaren aurrean kontzientzia kritikoa hartu eta egoera aldarazten ahalegindu.
- Sexu-aniztasunari buruzko hausnarketa: gure geletan dauden gay, lesbianak edota transexualak integratzen laguntzeko.
- Famili mota desberdinei buruzko hausnarketa: bi ama edo bi aita duten ikasleak ondo sentiarazteko.
- Emakumeak sexu-objektutzat hartzera daramaten jarrerekiko kontzientzia kritikoa lortzea, hala nola neska izaera fisikoagatik edo janzkeragatik, eta mutila “eredu maskulino ”tik aldentzeagatik gutxiestera daramaten jarrerekiko.
- Ikasgelan zein beste tokietan ikasleen eta irakasleen parte hartze kopuruari eta erari buruzko gogoeta, era orekatuan parte hartzera animatuz emakumezkoak eta gizonezkoak.

Genero indarkeria, homofobia, lesbofobia eta transfobia: Erasoak

- Behar diren neurriak hartu edozein eraso sexista edota homofobikoaren aurrean.
- Genero indarkeria, homofobia, lesbofobia eta transfobia egoerak gertatzen direnerako protokolo zehatza eta aplikagarria osatzea.



- Emakumeen gorputzari buruz edo pertsonen orientabide sexualaren inguruan, aipamen diskriminatzaile edo iraingarririk lukeen kartel edo pintaketarik ez du onartuko ikastetxeak.
- Ikastetxeak laguntza emango die eraso jasaten duten pertsoneri, legearen aurrean ere salatuz, eta eraso sexista eta homofobiko guztiak salatuko ditu.
- Genero indarkeriaren inguruko informazio-kanpainak, tailerrak... eta eraso sexistak eta homofobikoak aurrezaintzeko formazioa antolatzea DBH eta Batxilergo maila guztietan.

5. Orientazio akademikoa eta profesionala

A) Helburuak

- Informazioan, eta ez ohituretan, sustaturiko orientabidea, ondokoa kontuan hartuz betiko eredu profesionala jarraiarazteko presioa hor dago
- Gune pribatu zein publikoetan partaide izan behar dute emakume eta gizonezkoek independentzia pertsonala izateko, bereziki neskek independentzia ekonomikoa izateko baliabide diren lanbide eta enplegua izaten saiatu behar dira.
- Bereziki neskek arrakastarekiko beldurra eta erabakiak hartu behar direneanbesteen azpian jartzeko joera gainditzen saiatu behar dira norberaren ahalbideak ahaztuz, ohiko emakume-rolei dagozkien lanbideak hartzeko joera gainditu behar da, ostera lan- eta erabakien munduan baldintza okerragoetan aurkituko bailitzateke neska.

B) Bitartekoak

- Inkestak burutu ikasleen artean, beraien lan-espektatibak analizatzeko, eta jasotako emaitzak aztertu, aukera esteriopatuak egin ez ditzaten.
- Denei dagokien eran eman behar da lanbide interesei buruzko informazioa, eta ez sexuen arabera aurrebanaketa eginik.
- Neskek beren buruak enpresaritza- edo industri-karreratan ikus ditzateneko adibideak erakutsi, gizonezkoek buruturiko lanbide "femenino"etara sarbidea



ahalbidetu, nesken autokonfidantza handituz, arlo zientifiko eta teknologikoak beraiei erakargarri egiteko orientazio lana egin.

- Sexuen arteko aukera-berdintasunari buruzko birziklapen berezia irakasleentzat.
- Institutuan antolatzen diren ekintzetan (mahai inguruak, hitzaldiak, filmak...) kontuan hartu gonbidaturiko neskek eta emakumeak erreferentetzat baliogarriak izan behar direla.

6. Eskola orduz kanpoko jarduerak

A) Helburuak

- Hezkidetzan seinalaturiko helburuekin bat etorri daitezela, jarduerak antolatzean eta burutzerakoan nesken parte hartzea bultzatuz.

B) Bitartekoak

- Gorputz-adierazpena, gimnasia artistikoa, autodefentsa, zinea, antzerkia eta antzeko jarduerak antolatu, gai horietan trebeak direnen zuzendaritzapean.
- Kirol arlokoa balitz jarduera, neska-taldeak osatzeko ardura hartu.
- Etxeko munduarekin zer ikusia duten jarduerak antolatu, eskolako programaziotik kanpo baitago bera.
- Ikasle eta irakasle emakumeek osatzen duten "Mandraka" taldea bultzatzen segi.
- Hezkidetza, genero eta sexu-aniztasunaren ikuspuntutik festak eta kanpainak antolatu.
- Hezkidetza, genero eta sexu-aniztasunaren alde diharduten auzoko eta inguruetakoko beste talde, elkarte eta erakundeekin harremana eta lankidetzak sortu. (Murgibe, Aldarte, Guztiok, Berdindu, BEA...)



6. Gurasoak

A) Helburuak

- Gurasoek jokamolde, jarrera eta ekinbide ez-sexistak, eta ez-homofoboak uler eta bultza ditzaten saiatu, hezkidetza bidetik doakeen elkar lanari ekinez, bileretan, guraso elkartean...

B) Bitartekoak

- Familia guztiei institutuko Hezkidetza Proiektua helaraztea, guztiok bide beretik abiatzeko.
- Genero indarkeriaren inguruko informazio-kanpainak, tailerrak... antolatu
- Sexualitatea eta sexu-aniztasunari buruzko formakuntza saioak antolatu.